



TXOSTENA, IRUNVIKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2024ko URRIAREN 22an ONARTUTAKO BIGARREN

TRANSMISIOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKOA, JENDAURREAN

JARTZEKO EPEAN

1. ALEGAZIOA.- ESPEDIENTEA: 8531, 12247, 12119, 11724, 11589 eta 11681

Jendaurrean jartzeko fasean, eskatzaileek 2023ko diru-sarrereri buruzko dokumentazioa aurkeztu zuten.

Espediente horiek ez dira sartzen Irungo Administrazio Kontseiluak 2024ko urriaren 22an onartutako babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko behin-behineko zerrendan, IRUNVIK ezin izan dituelako lortu ofiziozko diru-sarrereren datuak.

OINARRIAK

IRUNVIko Administrazio Kontseiluak 2018ko uztailaren 17an onartu zuen "*Babes publikoko etxebizitzaren bigarren eta hurrengo transmisioen esleipen prozedura*", eta, ondoren, Administrazio Kontseilu honek 2019ko abenduaren 20an, 2021eko urtarrilaren 25ean, 2024ko irailaren 23an eta 2024ko urriaren 22an hartutako erabakiek aldatu zuten. Prozedura horren 22. artikuluan adierazten duenez, erosketan erabilitako etxebizitzaren aukera markatuta duten eskatzaileek eskuratu ahal izango dituzte IRUNVIko babes publikoko etxebizitza-eskatzaileen erregistroan onartutako eskabideak.

EBAZPEN - PROPOSAMENA

Eskabideak epe barruan aurkeztu ziren, eta diru - sarrereren baldintza betetzen dela egiaztatu da.

Alegazioak ONESTEA eta dagokien kupoetan sartzea proposatzen da, taula honetan jasotakoaren arabera:

ESP.:	BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN BEHIN BETIKO ZERRENDEN EGOERA	UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BEHIN BETIKO ZERRENDEN EGOERA
8531	III. KUPOA	III. KUPOA
11589	II. KUPOA	II. KUPOA
11681	III. KUPOA	III. KUPOA
11724	I KUPOA	EZ
12119	I KUPOA	I KUPOA
12247	I KUPOA	I KUPOA

2. ALEGAZIOA - 9322, 11265, 12103. ESPEDIENTEA

Jendaurrean jartzeko fasean, eskatzaileek bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu dute.

Beraz, azaldutako zerrendetan sartutako espedienteak dira, bizikidetzaren unitatearen osaeran aldaketak izan dituztenak.

OINARRIAK:

"IRUNVI/Irungo udaleko babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroa arautzen duen erregelamenduaren II. eranskinak", inskripzioaren datuei eustea arautzen duenak, honako hau jasotzen du:

izena emateko epea amaitu ondoren deialdi zehatz bati dagokionez, aldaketak onartu ahal izango dira seme-alaben jaiotzari, ezkontza berriei, legezko banantze edo dibortzio berriei eta heriotzei dagokienez.

EBAZPEN - PROPOSAMENA:

Bizikidetza - unitatearen osaeran izandako aldaketak egiaztatzen dituen dokumentazioa epe barruan aurkeztu denez, espedientea egungo egoerara eguneratu behar da.

Alegazioak ONESTEA eta dagokien kupoetan sartzea proposatzen da, taula honetan jasotakoaren arabera:

ESP.:	BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN BEHIN BETIKO ZERRENDEN EGOERA EGOERA	UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK
9322	III. KUPOA	III. KUPOA
11265	III. KUPOA	III. KUPOA
12103	III. KUPOA	III. KUPOA

3. ALEGAZIOA - 8037 eta 11428 ESPEDIENTEAK

Jendaurrean jartzeko fasean, eskatzaileek desgaitasun - egoeraren aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu dute.

Beraz, azaldutako zerrendetan sartutako espedienteak dira, nun desgaitasun - egoeran aldaketak gertatu diren.

OINARRIAK:

Desgaitasun-egoera jendaurrean jartzeko epean egiaztatzen da.

EBAZPEN - PROPOSAMENA:

Aurkeztutako alegazioak BAIESTEA proposatzen da, eta puntuazioa eguneratzea, taula honen arabera egiaztatutako desgaitasun - egoeraren arabera:

ESP.:	Behin-behineko zerrenden puntuazioa	Behin betiko zerrenden puntuazioa
8037	78	83
11428	20	25

4. ALEGAZIOA - 10955. ESPEDIENTEA

2024ko azaroaren 14an (1416 erregistroko sarrera-zenbakia), honako hau adierazten duen instantzia aurkeztu zuen:

"Eskatzaileen erregistroan baja emateko eskatzen du"

EBAZPEN - PROPOSAMENA:

Bere eskaera ONESTEA eta dagokion zerrendatik baja ematea proposatzen da.

Irunen, dokumentu hau sinatzen den egunean.

Stua.: Iñaki Campo Esnaola. Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa /Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAUko Aholkulari Juridikoa.